




EMAKUME ADITUAK NEUROZIENTZIAN

GURE GARUN-PROZESUAK ULERTZEN BADITUGU,
GIZAKI EGITEN GAITUENAREN ZATI HANDI BAT
ULERTUKO DUGU

ANA CLARA BOBADILLAK
HONELA DEFINITZEN DU BERE
BURUA: **MIGRATZAILEA**

ARGENTINAN JAIO
NINTZEN, BAINA EZ
NAUTE HANGOTZAT
JOTZEN MADRILEN HAZI
NINTZELAKO.
ESPAINIAN EZ NAIZ
ESPAINIARRA NIRE
FAMILIA ARGENTINARRA
DELAKO. ETA ETXEZ
FRANTZIARA ALDATU
GINENEAN, FRANTSESA
IKASI BEHAR IZAN NUEN.

**GOGORRA DA BETI
KANPOKOA IZATEA.**



GURASOAK ZIENTZIALARIAK DIRA
ETA, HORRI ESKER, ASKOTARIKO
JENDEA EZAGUTU ZUEN BEREN
IKERKETA-TALDEETAN



HORREZ GAIN, ANA CLARAREN
HOBBYA: UNEKO FILM
GARRANTZITSUAK IKUSTEA



ZER TXARRAK DIREN
DROGAK, BIZIA
GALZORIAN JAR
DEZAKETE...

**HARTARA, ZIENTZIAREKIKO
ETA ADIKZIOEKIKO JAKINGURA
PIZTU ZITZAION**

IKASKETAK FRANTZIAN AMAITU,
ETA BEKA ASKO ESKATU
ZITUEN GERO



HEGO CAROLINAN LORTU NUEN
BAT, ADIKZIOTAN ADITU PETER
KAUVAS ZIENTZIALARIAREKIN.
ETA ZALANTZARIK GABE JOAN
NINTZEN HARA.


ANA CLARAK BERRIZ MIGRATU ZUEN

2020AN, BESTE BEKA BAT LORTU ETA **BERE LAB PROPIOA SORTU**
ZUEN WYOMING-EKO UNIBERTSITATEKO FARMAZIA-ESKOLAN

ADIKZIOA AZTERTZEN DUGU, NOLA PROZESATZEN
DUEN GARUNAK SARI-PORTAERA



LABORATEGIAN AURKITU ZUTEN **DESBEDINAK DIRELA DROGA**
KONTSUMITZEAK AKTIBATZEN DITUEN NEURONA-SAREEN MULTZOAK
ZEIN SARI NATURALAK AKTIBATZEN DITUENAK



DROGAK AKTIBATUTAKO NEURONA-SAREA
ALDATZEA LORTZEN BADUGU, **ADIKZIOA**
MURRIZTU GENEZAKE

LAN EGITEAZ GAIN, ZIENTZIAN
ARITZEN DIREN **EMAKUMEEI**
LAGUNTZEN DIETEN HAINBAT
KOLEKTIBOTAN PARTE HARTZEN
DUT. LAGUNDUZ JADA
ZIENTZIALARIAK DIRENEI EDO
BAIABIDEAK LORTUZ
BITARTEKORIK
EZ DUTELAKO
ETXEAN ZIENTZIAREN
MUNDUAREKIN
HARREMANIK
EZ DUTENENTZAT



SUSANA MARTÍNEZ-CONDE
CORUÑARRAK BERE JOSTAILU
GOGOKOENAREKIN AURKITU ZUEN
ZIENTZIAREKIKO MAITASUNA:
MIKROSKOPIO BATEKIN.




BAINA ERREFERENTERIK EZ ZUENEZ,
OSO URRUN ZIRUDIEN ZIENTZIALARI
IZATEKO AUKERA

PSIKOLOGIA IKASI ZUEN, BAINA
BURMUINA ETA ADIMENA
IKERTZEA MAITE ZUEN



KONGRESU BATEAN BERE IDOLO
ZIENTIFIKOAK EZAGUTU ZUEN:
DAVID HUBEL. BIHOTZ HARTU,
ETA HITZ EGIN ZION




GAUR, SUSANA NEW YORK-EKO ESTATUKO
OFTALMOLOGIA, NEUROLOGIA ETA FISILOGIA
ETA FARMAKOLOGIAKO KATEDRADUNA DA

PERTZEPZIOA AZTERTZEN DUT, EZ BAITA
BEGIEKIN BAKARRIK BEGIRATZEN, GARUNAREKIN
ERE BAIZIK, ETA GARUNAK ERREALTATEA
INTERPRETATZEN DU



GARUNAK ESTIMULUA
PROZESATU ETA
LOREA DELA DIO

ETA PERTSONA BAKOITZA DEN
BEZALAKOA DENEZ, BERE
PERTZEPZIOA ERE HALAKOA DA



PERTZEPZIOAN ETA KOGNIZIOAN ESPEZIALIZATUTA
DAGO, ETA HAU AZTERTZEN DU:

NOLA ERAGITEN DIOTEN BEGIEN
MUGIMENDUEK IKUS-PERTZEPZIOARI
ETA NOLA ERAGITEN DION
IKUSMENAREN BIDEZ HAUTEMATEN
DUGUNAK BEGIEN MUGIMENDUARI

ADIB.:
MAGIA-TRUKUAK
Karta desagertu
egiten da zure
pertzepzioetik
hagaxka
magikoaren
keinuari so
egiten
dionzunean



ETA, IKERTU EZ EZIK, LAN HANDIA
EGITEN DU DIBULGAZIO ETA
KOMUNIKAZIO ZIENTIFIKOAN ERE

OSO GARRANTZITSUA DA
DIBULGAZIOA JENDEAK
EGIAZKO INFORMAZIOA
IZANGO BADU.

GAINERA, OSO GUSTUKO DUT
ENTZUTEA GAZTEEK NIRE
HITZALDIETAKO BATEAN AURKITU
ZUTELA NEUROZIENTZIA
IKASTEKO INSPIRAZIOA, HOTS,
NEU IZATEA NIK IZAN EZ NUEN
ERREFERENTEA

TED

SCIENTIFIC
AMERICAN




ALIENEK ZIZTATU ZION **ELENA BLANCO-SUÁREZ** ASTURIARRARI ZIENTZIAREKIKO GRINA



GAINERA, **BETI** ZUEN AMETS **AEB-ETARA JOATEA.** KALIFORNIARRA SENTITZEN ZEN



GURASOEN ETA IRAKASLEEN LAGUNTZARI ESKER, ELENAK LAN HANDIA EGIN ETA MADRILEN ETA BRISTOLEN IKASI ZUEN




POSTUA LORTUTA, ZIENTZIA-DIBULGAZIOA ERE EGITEN ZUEN ELENAK



GAUR, ELENA ASSISTANT PROFESSOR ARITZEN DA NEUROZIENTZIAN, FILADELFIKO THOMAS JEFFERSON UNIBERTSITATEAN

ASTROZITOTAN ADITUA DA



GARUNeko INFARTU BATEN ONDOREN ASTROZITOek JOKATZEN DUTEN PAPERa AZTERTZEN DU ELENAk. HORI GERTATZEN DENEAN, NEURONAK HONDATU EDO HIL EGITEN DIRA, ETA PERTSONAK AHALMEN FISIKOA GALTZEN DU


ASTROZITOek NEURONEI SENDATZEN LAGUN DIEZAIEKETE INFARTUAREN ONDOREN



BAINA KALTE ARE HANDIAGOa ERE EGIN DEZAKETE

GARUNeko INFARTUAK EZ DIE NEURONEI BAKARRIK ERAGITEN. GARRANTZITSUA DA GARUNAREN IKUSPEGI OROKORRA ULERTZEA

PROTEINA JAKIN BATZUK NON ETA NOIZ SORTZEN DITUZTEN ARABERA



ASKO DAGO JAKITEKO

ANA CLARA


NEURONA-SAREEN
ESPEZIFIKOTASUNA
FROGATU BEHAR DA.
ORAIN ARTE EZ
GENEKIEN DESBERDINAK
ZIRELA DROGAK
AKTIBATZEN DITUEN
NEURONAK VS SARI
NATURALAK
AKTIBATZEN DITUENAK

SUSANA

PERTZEPZIOAREN
MEKANISMOAK ULERTZEN
BADITUGU, HOTS,
GARUNAK NOLA
INTERPRETATZEN ETA
SIMULATZEN DUEN
ERREALITATEA,
KONTZIENTZIA ULERTZEN
HAS GAITEZKE, BAINA BIDE
LUZEA DAGO ORAINDIK

ELENA

GARUNeko ZELULEK
HAINBAT TESTUINGURUTAN
ELKARRI NOLA ERAGITEN
DIOTEN ARGITU.
HORRELAXE ULERTU AHAL
IZANGO DUGU NOLA
ALDATZEN DITUEN
ZAHARTZEAK PROZESU
HORIEK, ETA GAIKOTASUN
NEURODEGENERATIBOAK
SAIHESTU



Gezurra da gizakiak ez duela erabiltzen garunaren %100

**EGIA DA, ORDEA, EZ DITUGULA GURE
GARUN-MEKANISMOAK % 100 EZAGUTZEN, ETA
HORREGATIK JARRAITU BEHAR DUGU IKERTZEN**